

CALCUTA ONDOAN



LA MORERA FUNDAZIOA-REN ETA MUJERES ACTIVANDO-REN BISITA

Indiaz gain, azken urtean Calcuta Ondoan-ek beste herrialde batzuetan ere hasi du bere lana zabaltzen, hala nola Nepalen, Bhutanen eta Argentinan. Ildo horretatik, joan den otsailan, Matias Jaimovich eta Jesica González (La Jeka) izan genituen bisitan Gipuzkoan, Cordobatik etorrira.

Matias La Morera Fundazioa-ren sortzaileetako bat da; Calcuta Ondoan-ek 2024 amaieratik lankidetzat formalizatu du haiekin. Hala ere, harremana askoz lehenagokoa da: Iñigo Eguren nahiz Izaskun Andonegi (Calcuta Ondoaneko sortzaileak) eta Matias 1997an ezagutu ziren, Calcutako Teresa-ren boluntario gisa Kolkatan, Gonzalo Montiel-ekin batera. Esperientzia hura izan zen urte batzuk geroago bi erakundeak sortzera eraman zituen hazia: bata Donostian, eta bestea Cordoban.

la 30 urte geroago, haien bideak berriro gurutzatu dira, oraingoan erakundeen arteko aliantza moduan.

La Morera Fundazioa-k Cordoba hiriko auzo baztertuetan lan egiten du —El Tropezón, El Sauce eta La Toma—, eta hezkuntza, kultura, terapia eta komunitate arloko prozesuak garatzen ditu, bereziki adingabe, emakume eta

egoera zaurgarrian dauden familientzat, euren eskubideak aitortzeko bidean.

Bestalde, La Jeka Mujeres Activando kooperatibaren sortzailea da. Calcuta Ondoan-ek bi erakunde hauekin elkarlanean bi proiektu nagusi sustatu ditu: bata, indartze instituzional, familiar eta komunitarioan oinarritua; eta bestea, agroekologia eta kooperatibismoa ardatz dituen, ahalduntze pertsonalerako eta kolektiborako bide gisa.

Gipuzkoan egindako egonaldian, hainbat jardura antolatu ziren: rap tailerrak Donostiako, Zarauzko eta Hernaniko emakumeen etxeetan; hitzaldiak nahiz tailerrak Magale-Salestarrak Ikastetxean eta Easo Politeknikoan Donostian, besteak beste.

Ondoren, espazio horietan partekatu zituzten hausnarketen zenbait pasarte:

Muturreko eskuinaren gorakadaz

Matias Jaimovich:

"Funtsean, adi egon behar dugula uste dut. Gorroto-diskurtsoak, totalitarismoa eta demokraziaren ahultzea telefonoen eta sare sozialen bidez iristen zaizkigu, eta hortik hasten dira eragiten. Argentinan ez ginen garaiz ohartu:



40 zk,
Martxoa
2026

gure gazteak egunero gorroto-mezuz elikatzen ari ziren, bestearekiko —desgaitasuna duen pertsona, adinekoa, pobrea, azal-kolore edo orientazio sexual desberdina duen pertsona— mespretxuzko mezuez. Konturatu ginenerako, gehiegi geneukan barruan.

Orain desintoxikatu behar dugu burua bete diguten horretatik guztitik. Oso larria da, sareetan zaila delako benetan nor dagoen atzean jakitea; horrek zaurgarri egiten gaitu, eta gure kontura boterea eta dirua metatzeko erabiltzen gaituzte.

Hori gertatu zitzaigun, eta gaur egun, Javier Milei agintean dagoela, gazte asko hasi dira konturatzen erosi zuten promesa handiaz. Etorkizun hobeak agindu zizkieten, baina ez dira iritsi; aitzitik, etorkizun horiek ilunago eta zailago bihurtu dira."



Biktimatik bizirauletzara egindako bidea

La Jeka:

"Nire testuinguruan, emakumeok indarkeria matxista oso larriak bizi ditugu: sexu-esplotazioa txikitatik, osasun baldintza onartezinetan egindako abortuak... Datu bat ematearren, Argentinan ofizialki 30 ordu behin feminizidio bat gertatzen da, eta badakigu gehiago direla.

16-17 urterekin hasi nintzen indarkeria egoera oso gogorak bizitzen, eta haurdun nengoela areagotu egin zen. La Morera Fundazioa-ren jardueretan parte hartzen hasi nintzenean, ohartu nintzen niri gertatzen zitzaidana nire amak, arrebek eta auzoko emakume askok ere bizi zutela, eta normalizatuta geneukala.

Morera-n artea aurkitu nuen, tresna indartsu bat. Nire egunerokoetan idazten nuena partekatzen



hasi nintzen, pixkanaka kontatzen, eta bizitzen ari nintzena izendatzen: hori indarkeria zen. Ulertu nuen harremanak beste modu batean eraiki daitezkeela: zaintzatik, errespetutik, maitasunetik. Horrek barrutik bete ninduen, eta nire idatzietan islatu nuen: hau ez da nahi dudana bizitza.

2015ean, nire arrebarekin eta beste auzokide batzuekin batera, Mujeres Activando sortu genuen, beste emakumeei laguntzeko. Artearen bidez —argazkigintza, rapa, idazketa— euren prozesuetan laguntzen diegu. Emakume asko iritsi dira, egoera oso gogorrekin.

Gaur egun, Mujeres Activando, La Morera Fundazioa eta Calcuta Ondoan elkarrekin ari gara lanean. Itxaropena badago: gogo dugu, eta gure komunitateak aktibatzen ari gara indarkeriarik gabeko mundu bat eraikitzeko."

"Morera-n artea aurkitu nuen, tresna indartsu bat. Nire egunerokoetan idazten nuena partekatzen hasi nintzen, pixkanaka kontatzen, eta bizitzen ari nintzena izendatzen: hori indarkeria zen".



25 URTE PARTEKATUEN BIDEOA

laz, Calcuta Ondoan-ek 25 urte bete zituen: 25 urteko konpromisoa, elkartasuna eta lana, genero-berdintasuna, Giza Eskubideak eta Naturaren Eskubideak bermatuko dituen mundu baten alde.

labilbide honetan, artea ere txertatu nahi izan dugu, adierazpide, sentsibilizazio eta eraldaketarako tresna gisa, tokiko artisten eskutik. Era berean, Naturarekin bat aritzeko apustua egin dugu, ingurunea inspiratzen, hartzen eta eraldatzen duen espazio bizi gisa ulertuta. Sormenaren bidez, topaketarako, hausnarketarako eta parte-hartzerako guneak sortzea bilatu dugu, askotariko errealitateak hurbilduz eta kontzientziak piztuz.

Bide luzea izan da, eta prozesuan sinetsi duten pertsona askoren dedikazioari eta indarrari esker eraiki da. Duela 25 urteko ilusio eta zintzotasun berarekin begiratzen diogu etorkizunari, eta beste 25 urte gehiago egiteko gogoz gaude.

Gustuko izango duzuelakoan gaude.



UNIBERTSITATEKO PRAKTIKALDIA NEPALEN

"Daniel dut izena eta Nazioarteko Garapena eta Lankidetza Masterreko (EHU-Hegoa) ikaslea naiz. Niretzat, lankidetza ez da asistentzia-praktika bat; aitzitik, berdintasunarekiko, justizia sozialarekiko eta elkarrekiko ikaskuntzarekiko konpromiso politiko sakona da. Ez dut sinesten aurrez fabrikatutako erantzunetan, ezta eraldatu nahi dituen hierarkiak errepikatzen dituen elkartasunean ere. Horregatik aukeratu nuen Calcuta Ondoan, bere balioekin sakonki identifikatzen naizen erakundea.

Antolakundean izan dudana esperientzia integrala izan da. Lankidetza barrutik nola funtzionatzen duen ezagutzeaz gain, bere tentsioak eta benetako aukerak bizitzeko aukera izan dut, eta masterrean landutako ikuspegi teorikoak praktikara eramateko ere bai. Bereziki baloratzen dut Donostiako bulegoan ikaskuntza-prozesuak zaintzeko dagoen konpromisoa.

Martxoaren 25etik nago Pokharan, genero-berdintasuneko proiektuetan lanean, Kopila deituriko tokiko GKE baten eskutik. Apaltasunez noa: entzuteko, ikasteko eta nireak ez diren testuinguruak ulertzeko prest. Erantzun itxirik gabe iristen naiz, baina galdera hobeak egiteko eta errespetuz, entzunez eta benetako konpromisoz ekarpenak egiteko konbentzimenduekin."



CALCUTA ONDOAN-EN WEB BERRIA!

Webgune berria aurkezten dugu: espazio berritua, eskuragarriagoa eta dinamikoagoa, gure lana eta balioak modu errazagoan ezagutzeko sortua. Plataforma honen bidez,



Indian ez ezik, Nepalen, Bhutanen eta Argentinan garatzen ditugun lankidetza proiektuak xehetasunez ezagutzeko aukera izango duzu. Halaber, Gipuzkoan bultzatzen ditugun hezkuntza eraldaketarako ekimenei buruzko informazio esanguratsua ere bertan aurkituko duzu. Webguneak, gainera, albisteak, jarduerak eta informazio-buletinak modu erosoa eskuratzeko aukera ematen du. Diseinu argiago eta hurbilagoarekin, eta etengabe eguneratzen diren edukiekin, Calcuta Ondoan-ek beste urrats bat ematen du zuregandik gero eta gertuago egoteko.

AGENDA

ASTEAZKENA
APIRILA

15

Naturaren irtenbide faltsuak, Amigas de la Tierra -
EHU-ko campus-a Donostia

9:00-10:30

APIRILA

MAIATZA

16

-

23

Morera Fundazioaren argazki erakusketa "20 urteko
lan integral eta komunitarioa (Cordoba, Argentina)" -
Kabigorri, Irun

19:00-21:00

OSTIRALA
EKAINA

5

Ingurumenaren Munduko Eguna

ASTELEHENA
IRAILA

14

Ekofeminismoaren eta Naturaren Eskubideen
Topaketa - Cristina Enea, Donostia

10:00-18:00

NORTZUK GARA

Calcuta Ondoan GGKE onura publikoko elkarte da, Gipuzkoan 1999an sortua. Laguntza Humanitarioko eta Garapeneko proiektuak babesten ditugu Indian pertsonak eta taldeak osorik sustatzeko, betiere pertsona eta herri gisa duten nortasuna eta erlijioa errespetatuz eta giza eskubideak eta genero-berdintasuna sustatuz. Gure inguruan kontzientzia kritiko eta konprometitua sustatzen dugu Hegoaldeko herrialdeetan bazterkeria, injustizia eta pobretze egoeren kausei, ondorioei eta erantzunkidetasunari buruz. Era berean, ikuspegi positibo batetik, elkartasuna, kultura-aniztasunaren aberastasuna eta desberdinarekiko errespetua sustatzen ditugu. Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistroan inskribatuta dago, AS/G8501/2001 zenbakiarekin (IFZ: G-20696175). Euskadiko GGKEen Koordinakundeko eta Zero Pobrezia Plataformako kide da, eta 2009an onura publikokotzat jo zen (36/2009 Dekretua).

Calcuta Ondoan GGKE-ko **BOLUNTARIOTZA** adin guztietako eta konpromisoa duten pertsonak osatzen dute, eta horiek gabe gure lana ezinezkoa izango litzateke. **Animatu eta parte hartu!**

HARREMANA



Calcuta Ondoan ONGD



calcutaondoan



Calcuta Ondoan ONGD



+34 943 431 849



info@calcutaondoan.org



Maestro Santesteban Kalea, 3 - 2ºB
20011 Donostia Gipuzkoa



Lagundu!
calculaondoan.org

Zure ekarpenagatik onura fiskalak eskuratu ahal izango dituzu, onura publikoko elkarte deklaratuak baizara. Beraz, %30-erainoko desgrabazioa egin dezakezu PFEZan, zure kuotetatik edo dohaintzetatik. Garrantzitsua da ekarpenak egitean zure IFZ edo NAN-a adieraztea